

2

GIDA

DIDAKTIKOA:

UNIBERTSOAREN SORRERA TXINATARREN ETA JAPONIARREN ARABERA

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	4. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	17. or.
Bibliografia	22. or.
Egileak	23. or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA



	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
	Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Ahozko testuak ulertzeko estrategiak garatzea, hala nola, hipotesiak egitea, ideia nagusia eta informazio zehatzak identifikatzea.
	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzekeak, bai ezagutzak eraikitzekeak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna bezala erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarrizketak, bakarrizketak, deiak, oharrak.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea erakustea eta laguntzazko jarrerak garatzea.
	Idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioaz baliatzea, eta ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Webguneetan irakurritako informazioa laburtzea beste ikaskideentzat.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Grafikoen informazioa identifikatzea eta interpretatzea. Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Ereduetatik abiatuz, testuak berridaztea. Ekoitziko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea.
	Teknologia erabiltzea idatzizko mezuak sortzeko.	Interneteko helbideak erabiltzen hasia informazioa lortzeko. On-line hiztegietan bilaketak egiten hasia.
	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko hizkuntzaren eta idatziaren arteko ezberdintasun esanguratsuenak bereiztea. Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea: kondaira. Testu-transformazioak egitea: zabalduz, ordezkapenak eginez, osatuz, murriztuz edo atalen bat kenduz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea: narratzailea, pertsonaiak, narrazioaren mundua eta kontakizunaren garapena. Kontakizunaren hasiera ezberdinak. Kontakizunaren denbora adierazteko aditz laguntzaileen efektua. Ideien arteko loturak adierazteko baliabideen funtzioa. Ezaugarriak adierazteko aukerak: hitz bat, esapide bat. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazio-unitate gisa ulertzea.

JARDUERA FUNTZIONALA: Unibertsoaren fikziozko sorrera asmatu eta kontatu behar dute.

Narrazioa talde handian prestatuko da. Izan ere, ideiak zein aukerak planteatu eta azter daitezke taldean, baina, gero, talde bakoitzak berea egingo du, eta beste ikasgeletan kontatuko dute.

A) TESTUAREN ULERMENA. Ziurtatu ulermena, ondoren ematen diren irudi eta testuen laguntzaz. Parekatu testua eta irudiak.



Testua	Irudiak
<p>NARRATZAILA: Hasieran, kaosa besterik ez zen. Unibertsoa arrautza ilun bat zen. Arrautza horretatik, Pangu jainkoa jaio zen. Esnatu zenean, ilunpetan bizi zela konturatu zen. Ez zuen gustuko, eta arrautza apurtu zuen. Arrautza zatiak barreiatu zirenean, arinenak goian geratu ziren, eta zerua sortu zen. Zatiarik astunenak, berriz, behean geratu ziren, eta Lurra sortu zen.</p> <p>Orduan, eta zerua eta lurra berriro elkar ez zitezen, Panguk besoekin zerua gora bultzatu zuen, eta hankekin Lurra beherantz.</p> <p>Horrela bizi izan zen, harik eta lurra eta zerua sendotu arte.</p> <p>Lurrean etzan zen deskantsatzeko, baina gero eta sakonagoko loan murgildu zen, eta hil egin zen.</p> <p>Haren gorputza desegin egin zen, eta haren apurretatik izaki bizidunak sortu ziren.</p> <p>Haren hatsa haize eta hodei bilakatu zen. Haren ahotsa, berriz, trumoi bilakatu zen. Ilargia eta Eguzkia haren begiak dira. Haren gorputzetik, mendiak sortu ziren. Zuhaitzak eta loreak haren ileetatik sortuak dira.</p> <p>Baziren beste jainko batzuk ere; garrantzitsuena Nüwa zen. Aintzira batean bizi zen, eta oso gorputz berezia zuen: erdia herensugearena eta beste erdia gizakiena bezalakoa. Behin batean, aspertuta zegoela, aintzirako lokatzaz irudiak egiten hasi zen.</p> <p>Lokatzaz gizakume itxurako figurak egiten hasi zen.</p> <p>Burua eta besoak bereak bezalakoak jarri zizkien. Bi hanka ere jarri zizkien, zutik eta azkarrago ibil zitezien.</p>	

Testua	Irudiak
<p>Behin gizakiak sortuz gero, adimena eman behar zien. Eta hori Fushik egin zuen. Fushi Nüwaren neba zen, jakinduriaren jainkoa. Hainbeste gustatu zitzaion, non gizakiak sortzen aritu baitzen oso berandura arte! Hurrengo goizean, esnatutakoan, Nüwa bere lana ikustera joan zen. Gizakiak hantxe zeuden oraindik. Orduan, txistu egin zien, eta bizia eman zien.</p> <p>Eta Fushik gizakiei adimena oparitu zien.</p> <p>Geroago, unibertsoa eta gizakia desagertzeko zorian egon ziren behin.</p> <p>Sua eta Ura borrokan aritu ziren. Suak irabazi zuenez gero, Uraren Jainkoak bere buruaz beste egin zuen, lotsaren lotsaz.</p> <p>Mendi baten kontra jo zuen, harik eta mendia behera bota zuen arte. Mendiak zeruari eusten zionez, mendiarekin batera zeru-hegala ere erori egin zen. Jainkoa ez zen hil, baina lurrak harrotu egin ziren. Zirrikitu batzuetatik sua irten zen, eta beste batzuetatik ura. Uholde handia sortu zen, eta gizaki asko hil ziren. Hura hondamendia! Handia zen Nüwaren samina. Oso goibel zegoen. Eta, zerua konpondu ondoren, berriro halakorik gerta ez zedin, ezetz jakin zer egin zuen?</p> <p>Dortoka baten hankak jarri zituen zutabe gisa, eta, horrela, aurrerantzean zerua ezin eroriko zen.</p>	

HIZKUNTZAREN GAINEKO HAUSNARKETA (talde handian)

Noiz gertatu da kontatu digutena?

Testu honetan, kondaira bat kontatzen digute, baina noiz gertatu den ez digute esan.

Ekintzak noiz gertatu diren adierazi gabe dago. Duela denbora asko gertatu zen, eta, gainera, aintzat hartu behar da dena amaituta dagoela. Zuek idatzi falta diren hitzak.

Hasieran, kaosa besterik ez Ez argirik; beraz, gaua baizik ez

Unibertsoa arrautza ilun bat Arrautza horretatik, Pangu jainkoa **jaio**

..... . Pangu iluntasunean **egon** mila urtez, eta denbora hori guztia

lotan **eman** **Esnatu****ean**, ilunpetan **bizi****la konturatu** Ez

..... gustuko, eta arrautza apurtu aizkora batez. Arrautza zatiak

barreiatu**nean**, arinenak goian **geratu**, eta zerua sortu

Zatirik astunenak, berriz, behean geratu , eta Lurra sortu

Orduan, eta zerua eta lurra berrero **elkar** ez, Panguk besoekin zerua

gora **bultzatu** eta hankekin Lurra beherantz.

Horrela **bizi izan**, harik eta lurra eta zerua sendotu arte.

Oso nekatuta**nez** gero, eta zahartuta, lurrean **etzan**

deskantsatzeko, baina gero eta sakonagoko loan murgildu, eta hil

egin

Haren gorputza **desegin egin**, eta haren apurretatik izaki bizidunak **sortu**

..... .

Haren hatsa haize eta hodei **bilakatu** Haren ahotsa, berriz, trumoi

bilakatu Ilargia eta eguzkia haren begiak Haren gorputzetik,

mendiak **sortu** Zuhaitzak eta loreak haren ileetatik **sortuak**

Soinean mikroorganismoak animalia bilakatu

Hemen beste kondaira bat duzue; irakurri, eta pertsonaiak izendatu eta marraztu.
Konturatzen bazarete, izenaren ondoren koma bat dago, eta ondoren azalpen txiki bat.
Olofi, guztiaren sortzailea. Zergatik? Ezagunak ez diren pertsonaiak aurkezteko modu bat da, eta beharrezkoa da identifikatzea.
Beste era batera egin zitekeen: *Bazen behin jainko bat, Olofi izena zuena. Olofik unibertsoa eta beste jainkoak sortu zituen...*

Idatzi hasiera, eta aurkeztu pertsonaiak.

ITSASOAREN KOLOREA

Olofik, guztiaren sortzaileak, Okun, itsasoa, sortu zuenean, ez zekien zer kolore eman. Bilatu eta bilatu arren, ez zitzaion ezer bururatzen.

Ordurako, dena margotuta zegoen: zerua, zuhaitzak, lurra, hodeiak...

Okun zen kolorerik gabe zegoen bakarra.

Egunero Olofini honela galdetzen zion:

- Baba, badakizu nola marraztu nire olatuak?
- Ez, seme, oraindik ez.

Itsasoa haserretu egiten zen, kolorerik gabe zegoelako. Itsasgora zaratatsuak eta itsasbehera handiak izaten zituen.

Egun batean, Otenaguak, zeruak, hain haserre ikusita, lagundu nahi zion, baina, oso triste zegoenez, ez zuen berarekin hitz egitea lortu. "Kolore bat prestatu behar dut, eta azkar!"

Egun batean, itsasoa biziki haserretu zen, eta, lurrera zabaldu zenean, hondamendia eragin zuen.

Olofik, guztiaren sortzaileak, itsasoa desagerrarazi egin nahi zuen, baina Otenaguak, zeruak, honela esan zion:

- Ez zigortu, aita!
- Atzera egin dezala, edo, bestela, desagerrarazi egingo dut!

Otenagua behera jaitsi zen, eta itsasoaren gainean jarri zen, bere koloreaz estaltzeko. Orduan, itsasoak zerua irentsi zuen, eta dena ilunpean geratu zen.

Otenagua, itsasoan sartuta, hotzez eta hezetasunaren eraginez, hiltzear zegoen.

Itsasoa konturatu zen, eta aske utzi zuen.

Harrezkero, zeruaren kolorea du itsasoak, eta zerumugan elkartzen dira.

B) TESTUAREN ETA LANAREN GAINKO HAUSNARKETA, TALDE HANDIAN

Eztabaidatu eta berregin ekoizpenerako kontrol-zerrenda talde handian, irakaslearen laguntzaz.

Deskribapenean, oso garrantzitsua da ezaugarriak ondo aukeratzea: hitz gutxi, baina nahikoak.

Gaiak sartzean, kontuz ibili: aurkeztu pertsonaiak eta lekuak.

Gogoan izan, jainkoen izenak aipatzeaz gain, haien ezaugarriren bat ere aipatu behar dela:

Olofi, guztiaren sortzailea.

Aintzat hartu kontakizunaren denbora oso urruna dela eta ekintzak aspaldian gertatu eta amaitu zirela.

Adierazi ideien arteko lotura.

C) EKOIZPENA HIRU FASETAN: C.1., C.2. eta C.3.

- C.1. Lehendabizi, asmatutako unibertsoaren eta jainkoen deskribapena egingo dute.
- C.2. Gertakariak asmatu eta horien arteko kausa-efektua ezarriko dute.
- C.3. Kontakizuna beste gela batean kontatu baino lehen, irakaslearekin eta ikaskideekin proba-saioak egingo dituzte.

C.1. NARRAZIOA KOKATZEN DEN MUNDUAN JARRIKO DUGU ARRETA.

Kondairan asmatutakoa nondik sortu da? Ezagutzen zutenetik abiatu ziren:

SHANG TE: Ez. Haren gorputza desegin egin zen, eta haren apurretatik izaki bizidunak sortu ziren.

SHANG TE: (Offean) Haren hatsa haize eta hodei bilakatu zen. Haren ahotsa, berriz, trumoi bilakatu zen. Ilargia eta Eguzkia haren begiak dira. Haren gorputzetik, mendiak sortu ziren. Zuhaitzak eta loreak haren ileetatik sortuak dira.

ODIN: (Offean) Eta animaliak? Nondik sortu ziren animaliak?

Gu ere, zerbait asmatzen dugunean, ezagutzen dugunetik abiatzen gara. Beraz, informazioa bilatu behar duzue. Lana bana dezakezue, eta elkarri adierazi.

Jarduera: Unibertsoaren sorrerako lehen uneak irudikatu ahal izateko, jo honako webgune hauetara, ikusi irudiak, irakurri testua eta aukeratu batzuk, zeure ikaskideei adierazteko.

Ondoren, erabili kontakizuna lantzeko:

Unibertsoaren sorrera:

http://www.esa.int/esaKIDSen/SEMSZ5WJD1E_OurUniverse_0.html

http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=5434

<http://personal.telefonica.terra.es/web/astrobasic/fotouniverso/es/index.htm>

.....

JAINKOEN DESKRIBAPENA, IRUDIZ ETA BERBAZ.

Demagun, zuen ustez, unibertsoa jainko eta jainkosek sortua dela. Nola irudikatzen dituzue? Nolakoak dira zuen ustez? Edo, hobeto esanda, nolakoak izan beharko lukete? Erabil itzazue hurrengo taulako hitz eta esapideak, irudikatzen dituzuen jainko eta jainkosak hitzez azaltzeko. Jainkoak edo jainkosak existitu ez direla uste baduzue, beste aukera bat proposatzen dizuegu: irudika dezakezue pertsonaiarik perfektuena, unibertsoa sortzeko ahalmena ez badu ere, mundu honetako gaitzak konpontzen lagunduko diguna.

Hitz solteak	<p>Ahalmena: Boterea, aginpidea, agintea, eskumena, indarra, autoritatea, fakultatea, gaitasuna, boteretsua, garrantzitsua.</p> <p>Jainkoa izendatzeko: Jainkoa, jainkosa, jainkotxoa, jauna, izaki ahaldua, botereduna.</p> <p>Deskribatzeko (positiboki eta negatiboki): Askatzailea, argia, aita, ama, kontsolamendua, distiratsua, gorena, jakintsua, salbatzailea, perfektutasuna, osotasuna, hobezintasuna, ekaiztsua, ontasuna, ankerra, maltzurra, gaiztoa, leiala, zintzoa, azpisugea, azpijalea, doilorra, zirtzila, zitala, dongea, bilaua, etoia, zekena, handiustea, harroputza, artoberoa, adarjotzailea, harpa-jotzailea, gaita onekoa, hari onekoa, ziri-sartzailea...</p>			
	Goian agertzen diren ezaugarriak neurtzeko, kuantifikatzaileak erabil daitezke:			
	<p>Gutxi Ahalmen gutxiko</p>	Ahaltsua	<p>Oso Oso ahalsua</p>	Inor baino gehiago Ahaltsuena Ahaltsuetan ahalsuena
Esapideak	<p>Ahaltsua: unibertsoaren eta izaki bizidun guztien sortzailea, unibertso guztiaren babeslea, jakituriaren iturria, esku eduki, eskuan egon...</p> <p>Bihotz onekoa: onez onean, urrea diamantearekin izan, zoriontasunaren sortzailea, gaizkileetan gaizkileena, oparotasunaren sorburua.</p> <p>Ogi puska, zeruko txaloa, arto zatia lakoa izan, bihotz zabala ukan, errai onak ukan, esku laburrekoa.</p> <p>Harroputza: artobero, handinahiko, buruharro, handiuste, hego-haizea baino harroagoa, hontz putza baino harroagoa, pareta gaineko oilarra, azalak hartu ezinik, gainak hartuta egon, haizez beteta egon, goiak hartua egon.</p> <p>Umoretsua: adarra jo, harpa jo, Astigarraga aldetik jo, flauta jo, gaita onean egon, gaitan ibili, kaila jo, (inori) musutik eman, teniola jo, tronpa jo, ziria sakatu / sartu, zirikada sakatu / sartu, zirikoa sartu.</p> <p>Apala: belarriak apal eginda, buruz behera, buztana hankapean.</p> <p>Irmoa: bere horretan, bere hartan, beti batean egon, burua betiko lepotik ukan, burua lehengo lepotik eduki, burua lehengo lepotik ukan.</p>			
	<p>Idatz ezazue pertsonaien deskribapena:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>			

Ezagutzen ez dituzuen hitzen esanahia on-line hiztegieta bilatzea oso erraza da. Asko daude. Euskaraz, erabilienak **3.000 hiztegia** eta **Elhuyar** dituzue. Badaude beste batzuk ere: **Euskalterm** eta **Euskaltzaindiarena**.

Pausoak:

1: Idatzi hitza. Euskaraz ezagutzen baduzu eta gaztelaniaz nola esaten den jakin nahi baduzu:


EUSKARA-GAZTELANIA
(bestela, gaztelania-euskara)

2: Saka ezazu **bilatu** botoian



Demagun konfunditu zarela eta, **EGINKIZUN** idatzi beharrean, **EGONKIZUN** idatzi duzula.

3: Bilatzen duzun hitza ez badago, pantaila hau agertuko zaizu, hasiera bera edo antzekoa duten hitzak alfabetikoki erakusten dituena.



Treba zaitetz on-line motako hiztegiak erabiltzen:

www.euskalterm.com

www.elhuyar.hiztegia.com

www.euskaltzaindia.com

C.2. Asmatu kausa-efektu kate bat:

Kondairetan, unibertsoaren eta jainkoen deskribapena asmatzeaz gain, gertakariak asmatzen dituzte. Baina, gertakari horien artean, kausa-efektu erlazioa dago. Hau da, ez dute edozein gertakari asmatzen.

Hona hemen adibide batzuk:

C.2.1. Unibertsoa arrautza bat zen → Arrautzatik jainko bat jaio zen → Arrautza apurtu, eta barreiatu egin zen → Zati astunetatik, lurra sortu zen → Zati arinetatik, zerua → Lurra eta zerua banatu egin zituen Panguk → Ondorioz, Pangu nekatu egin zen → Pangu lokartu egin zen →....

C.2.2. Unibertsoa

Olofik dena sortu eta margotu zuen → Itsasoa sortu zuen → Ez zekien zer kolore eman → Itsasoak bere kolorea nahi zuen → Olofik ez zekien nola margotu → Itsasoa haserretu egin zen → Itsasoa lurrera zabaldu zen → Hondamendia zabaldu zen → Olofik zigortu egin nahi zuen →...

Orain, zuen txanda da:

..... → → →
..... → → →
..... → → →
..... → → →
..... → → →
..... → → →

UNIBERTSOAREN SORRERA TXINATARREN ETA JAPONIARREN ARABERA

MARI: Kaixo, lagunak! Aurreko batean agindu bezala, beste jainko batzuek kontatu didatena ikusi ahalko duzue. Adi egon!

ODIN: Tira, nire txanda da. Orain, nik esango dizuet nola sortu zen mundua, hau da, unibertsoa.

SHANG TE: Barkatu, baina ez da zure txanda, nirea baizik.

ODIN: Zergatik?

SHANG TE: (OFF) Bada, zu baino lehenago (ON) sortu nintzelako. Gainera, nik dakidala, zuk ez duzu ezer sortu. Zu unibertsoaren zaindaria baino ez zara; zeure lurraldeetan, jakina.

ODIN: Zuk ere ez (OFF) duzu ezer sortu!

SHANG TE: (OFF) Egia, (ON) baina nik mundua nola sortu zen kontatuko dizuet; gure kondairen arabera, noski.

ODIN: Bueno, ongi da.

SHANG TE: (OFF) Hasieran, kaosa besterik ez zen. Ez zen argirik; beraz, gaua baizik ez zen. Unibertsoa arrautza ilun bat zen. Arrautza horretatik, Pangu jainkoa jaio zen. Pangu iluntasunean egon zen mila urtez, eta denbora hori guztia lotan eman zuen. Esnatu zenean, ilunpetan bizi zela konturatu zen. Ez zuen gustuko, eta arrautza apurtu egin zuen, aizkora batez. Arrautza zatiak barreiatu zirenean, arinenak goian geratu ziren, eta zerua sortu zen. Zatik astunenak, berriz, behean geratu ziren, eta Lurra sortu zen.

SHANG TE: (OFF) Orduan, eta zerua eta lurra berriro elkar ez zitezen, Panguk besoekin zerua gora bultzatu zuen, eta hankekin Lurra beherantz.

ODIN: Eta kendu zenean?

SHANG TE: Hmm! Ez zen kendu. Horrela bizi izan zen, harik eta lurra eta zerua sendotu ziren arte.

SHANG TE: (Off) Oso nekatuta zegoenez gero, eta zahartuta, lurrean etzan zen deskantsatzeko, baina gero eta sakonagoko loan murgildu zen, eta hil egin zen.

ODIN: Eta iluntasunera itzuli zen, e?

SHANG TE: Ez. Haren gorputza desegin egin zen, eta haren apurretatik izaki bizidunak sortu ziren.

SHANG TE: (Offean) Haren hatsa haize eta hodei bilakatu zen. Haren ahotsa, berriz, trumoi bilakatu zen. Ilargia eta Eguzkia haren begiak dira. Haren gorputzetik, mendiak sortu ziren. Zuhaitzak eta loreak haren ileetatik sortuak dira.

ODIN: (Off) Eta animaliak? Nondik sortu ziren animaliak?

SHANG TE: Ezetz asmatu!

ODIN: Odoletik!

SHANG TE: Ez horixe! Odoletik ibaiak sortu ziren.

ODIN: Beste jainko batek sortu zituen orduan?

SHANG TE: Ez ba! Ezin duzu imajinatu, e?

ODIN: Amore ematen dut, esan behingoz!

MARI: Zuk badakizu nondik sortu ziren?

RA: Arrastorik ere ez daukat. Ea, ba, esaten duen!

ODIN: E! Zertan ari zara, baina?

SHANG TE: Ezertan ez, zorriren bat ote zenuen bilatzen besterik ez.

ODIN: Zorriak, nik?

SHANG TE: Bai, edo arkakusoren bat, edo...

ODIN: Zer arkakuso eta arkakuso ondo! Bila ezazu zeure besapean!

SHANG TE: Barkatu, barkatu. Ez bedi horrela jar berorren gorentasuna! Txantxa besterik ez da izan. Oraindik ez duzu asmatu nola sortu ziren animaliak.

ODIN: Amore eman dudala ba! Esango didazu ala ez?

SHANG TE: Hori da, hori, jenio bizia izatea!

ODIN: Tira, esan.

SHANG TE: Bizkarroietatik sortu ziren, bai alajaina! Soinean zituen mikroorganismoak animalia bilakatu ziren.

ODIN: A zer irudimena! Den-dena aprobetxatu zuen. Horra, horra nolakoak zareten! Eta gizakiak nondik sortu zituen? Ordurako ez zen ezer geratuko, gorputz osoa agortuta izango baitzuen. Azazkaletatik edo betileetatik, e? Beste bati sartu ziri hori!

SHANG TE: Mmm! Txoriburu halakoa! Ez badidazu sinesten, ez dizut kontatuko.

MARI: Ez zaitetz haserretu, Odin oso bihurria da eta.

SHANG TE: Ba, nik entzuna nuen jakinduriaren jainkoa zela. Beharbada, gaizki informatua nago.

MARI: Jakintsua da, bai, baina bihurria ere bai.

RA: Ez egin jaramonik! Jarraitu, niri atsegin zait.

ODIN: Niri atsegin zait, niri atsegin zait! Ez al zara konturatu zure kondairaren antz izugarria duela? Oker ez banago, zure istorioaren arabera...

RA: Bai, egia da. (Offean) Nut eta Geb elkarri lotuta zeuden, baina Chu-k, aireak, banandu egin zituen, eta mundua bizitoki egokia bilakatu zen. Begira, hori da Chuk, eta irudi honetan agertzen dena, hain zuzen, lurra eta zerua banatzen ari zen unea da.

MARDUK: Harrigarria da zeinen antzekoak izan daitezkeen kondairak. Hain leku urrunetan sortuak eta, hala ere, hain antzekoak.

MARI: Bai. Zuk kontatu zeniguna ere oso antzekoa izan zen.

MARDUK: (Offean) Hasieran, kaosa besterik ez zen. Lurra, lainoa eta urak nahasian zeuden. Zerua eta lurraren mugak sortu ziren, baina elkartuta zeuden: Anshar eta Kishar jainkoak ziren. Ti'ammak itsasoko jainkosa hil behar izan nuen, itsasoa lurretik bereiz zedin. Bi zatitan banatu nuen, eta lurra eta itsasoa ondo bereizita geratu ziren.

SHANG TE: Agian, jakinduria herri batetik bestera igaro da, eta, aldaketak izan arren, mamia bera da. Dena dela, nik ez dut neurea amaitu. Non nindoan?

ODIN: Zuen ustez gizakiak nola sortu ziren.

SHANG TE: Egia!

SHANG TE: (Offean) Panguk sortu zuen mundu horretan, ez zen gizakirik. Jainko eta jainkosak bai, ordea. (Offean) Garrantzitsuena Nüwa zen. Panguk sortu zuen ordena iraunarazteko ardura zuen. Aintzira batean bizi zen, eta oso gorputz berezia zuen: erdia herensugearena, eta beste erdia gizakiena bezalakoa. Behin batean, aspertuta zegoela, aintzirako lokatzaz irudiak egiten hasi zen.

NÜWA: (OFF) (Hasperenka) Mundu hau oso polita da, baina bakar-bakarrik nago. Lagunak sortuko ditut.

SHANG TE: (Offean) Lokatzaz, gizakume itxurako figurak egiten hasi zen.

NÜWA: (OFF) Burua eta besoak nireak bezalakoak izango dituzte, baina hankak ez. Bi hanka jarriko dizkiet, zutik eta azkarrago ibil daitezten.

SHANG TE: (Offean) Behin gizakiak sortuz gero, adimena eman behar zien. Eta hori Fushik egin zuen. Fushi Nüwaren neba da, jakinduriaren jainkoa. Hainbeste gustatu zitzaion, non gizakiak sortzen aritu baitzen oso berandura arte! Hurrengo goizean,

esnatutakoan, Nüwa bere lana ikustera joan zen. Gizakiak hantxe zeuden oraindik. Orduan, txistu egin zien, eta bizia eman zien.

ODIN: Ni bezala!

SHANG TE: Bai. Hala da. Eta Fushik gizakiei adimena oparitu zien.

MARI: Eta, hala bazan edo ez bazan...

SHANG TE: Ez dut amaitu.

MARI: Unibertsoa nola sortu zen azaldu diguzu, gizakia barne. Zer gehiago falta da?

ODIN: Lamiok nork sortu ote zintuzten, alajaina! (AD LIB)

SHANG TE: Ez! Nik ez dakit hori.

MARI: Orduan, zer falta da?

SHANG TE: Bada, unibertsoa eta gizakia, behin... desagertzeko zorian egon zirela.

ODIN: Zer dela eta?

SHANG TE: Sua eta Ura borrokan aritu ziren. Suak irabazi zuenez gero, Uraren Jainkoak bere buruaz beste egin zuen, lotsaren lotsaz.

MARI: Jainko batek bere buruaz beste egin? Ez dut sekula horrelakorik entzun. Jarraitu, jarraitu kontaktzen!

SHANG TE: (Offean) Mendi baten kontra jo zuen, harik eta mendia behera bota zuen arte. Mendiak zeruari eusten zionez, mendiarekin batera zeru-hegala ere erori egin zen. Jainkoa ez zen hil, baina lurrak harrotu egin ziren. Zirrikitu batzuetatik sua irten zen, eta beste batzuetatik ura. Uholde handia sortu zen, eta gizaki asko hil ziren. Hura hondamendia! Handia zen Nüwaren samina. Oso goibel zegoen.

NÜWA: Ai, hau anabasa! Nire umeak! Hau deskalabrua! Kosta ahala kosta, zerua berriro konpondu behar dut.

SHANG TE: Eta, zerua konpondu ondoren, berriro halakorik gerta ez zedin, ezetz jakin zer egin zuen? E, Odin? Jakinduriaren jainkoak jakin beharko luke ba! Kar, kar, kar!

ODIN: Kar, kar, kar!

SHANG TE: Badakizu ala ez?

ODIN: Pistaren bat eman.

MARI: Zer egin ote zuen?

RA: Ez dakit.

SHANG TE: Bada, zerua ez erortzeko, lau lekutan zerbait ipini zuen. Zer?

ODIN: Zutabeak!

SHANG TE: Bai. Baina nolakoak?

ODIN: Zurezkoak?

SHANG TE: Ez! Kar, kar, kar! Ez zara horren jakintsua, e?

ODIN: Dena dakienik ez da jaio! Ezta zu ere! Ordenaren jainkoa zara, baina ez adimenarena; zerorrek esan duzu!

SHANG TE: Orduan, esango dizut?

MARI: Berari ez badiozu esan nahi, guri bai, behinik behin.

SHANG TE: Dortoka baten hankak jarri zituen zutabe gisa, eta, horrela, aurrerantzean zerua ezin eroriko zen.

ODIN: Oso ona! Txalo bero bat! A zer irudimena!

SHANG TE: Eta, horrenbestez, mundua halakoa da.

ODIN: Zuen ustez!

SHANG TE: (OFF) Bai ba! Begira, dortokak zeruari eusten dio. Hanka bat iparrean du; bestea hegoaldean, hirugarrena sortaldean eta, azkenik, laugarrena sartaldean.

MARI: Ederra izan da zure azalpena. Baina, nik dakidala, mundua ez da laua.

ODIN: Egia da.

SHANG TE: Baliteke, nik ez baitut kanpotik ikusi, baina batzuek diote honelakoa dela.

SHANG TE: Goringoa Lurra litzateke, eta zuringoa airea.

ODIN: Eta Eguzkia?

SHANG TE: Zeruan dabil, jira eta bira.

SHANG TE: Hauxe da dena. Zure ustez, nolakoa da?

ODIN: Laua!

MARI: Oker zaudete, baina hori beste istorio bat da. Eta, beste istorio bat denez gero, hurrengo batean kontatuko dizuet.

SHANG TE: Agur, agur!

ODIN: Hurren arte!

RA: Ondo izan, lagunok!

MARI: Laster arte!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica

ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea.

Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kuetto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

Nahasketak:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:
Ana Urresti

Koordinatzailea:
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1496/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA